

2022ko lehen hiruhilekoan esportazioen prezioak % 6,2 igo ziren

Inportazioen prezioak % 9,6 goititu ziren

2022ko lehen hiruhilekoan, esportazioen prezioak % 6,2 igo dira 2021eko azken hiruhilekoaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuz gero, % 18,5eko gorakada izan da.

Inportazioen prezioek jokamolde bera izan dute: % 9,6 igo dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 30,4 2021eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

Esportazioei dagokienez, hazkunde esanguratsua izan da (% 7,3) produktu energetikoen prezioetan, 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta; halarik ere, hazkunde hori nabarmena da baita aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta ere, % 39,4ra iristen baita. Produktu ez-energetikoen portaera neurritsuagoa izan da, aurreko hiruhilekoaren aldean % 5,4 igo baita, eta urte artean % 16,8.

Inportazioen kasuan, produktu energetikoen prezioen indizea % 33,5 hazi zen hiruhileko arteko tasan, eta ez-energetikoen % 4,7; urte arteko ikuspegitik, joera hori areagotu egin da, prezio energetikoetan hazkunde handia (% 71,3) gertatu baita, eta ez-energetikoetan ere igoerarik izan baita (% 22,0).

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2022/I

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	6,2	18,5	9,6	30,4
Energiazko gaiak	7,3	39,4	33,5	71,3
Energiazkoak ez diren gaiak	5,4	16,8	4,7	22,0
Kontsumo-ondasunak	2,4	8,6	-8,9	4,2
Kapital-ondasunak	7,2	11,1	-3,9	-0,7
Bitarteko ondasunak	6,7	23,4	12,6	36,0

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2022ko Ekainaren 30a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, nabarmenak dira Kapital-ondasunen (% 7,2) eta Bitarteko ondasunen (% 6,7) esportazioen prezioek izaniko igoerak aurreko hiruhilekoaren aldean. Urte arteko datuei dagokienez ere hazkunde handia izan dute Kapital-ondasunen (% 11,1) eta Bitarteko ondasunen (% 23,4) prezioek. Kontsumo-ondasunen prezioak pixka bat moteldu dira bi konparazioetan (% 2,4 eta % 8,6).

Inportazioen analisiaren arabera, Bitarteko ondasunen prezioak igo egin dira, bai hiruhileko artean (% 12,6), bai urte artean (% 36,0), baina Kapital ondasunetan urte arteko (-% 0,7) eta hiruhileko arteko (-% 3,9) atzerakada izan da. Kontsumo-ondasunen kasuan, % 4,2ko hazkundera izan da aurreko urtearen aldean, baina % 8,9ko atzerakada aurreko hiruhilekoaren aldean.

Esportazioek xede dituzten **eremu geografikoak** kontuan hartuta, 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, prezioak igo egin ziren eremu ekonomiko guztietan; hala, Munduko gainerakoan % 4,8 igo ziren, Eurogunean % 5,0 goititu ziren, EB-28an % 5,3 eta ELGAN % 6,3. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, joera errepikatu egin da: % 15etik gorako igoerak izan dira eremu ekonomiko guztietako prezioetan, eta nabarmentzekoa da ELGA, urte arteko % 18,7ko hazkunderarekin.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2022/I

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	6,2	18,5	9,6	30,4
Euro eremua	5,0	17,3	4,5	16,1
EB-28	5,3	17,9	2,5	13,8
ELGE	6,3	18,7	7,9	24,8
Munduko besteak	4,8	16,8	12,4	42,9

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean


Data 2022ko Ekainaren 30a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioetan prezioek gora egin dute eremu geografiko guztietan, aurreko hiruhilekoaren aldean, eta nabarmentzekoak dira ELGA (% 7,9) eta Munduko gainerakoa (% 12,4). Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Munduko gainerakoa (% 42,9) eta ELGA (% 24,8) ere nabarmentzen dira; EB-28tik (% 13,8) eta Euroguneetik (% 16,1) datozen inportazioek hazkunde txikiagoak izan dituzte.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-artereko aldakuntza-tasa. (%)

■ Esportazioak ■ Inportazioak



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62

Euskal AEko Kanpo Merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak-UBI. Prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Kanpo Merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak-UBI. Datu-bankua.